# MARSELLESA Filma Jean RENOIR 1938

| Denbora | Eszena |
|---|---|
| 00´00´´ | **Provenza** 1790 ekaina<br><br>Legez kanpokoko ehiztari bat harrapatzen dute (Cabrí) noblearen soldaduak bere lurretan harrapatu dutelako. Epaitegi edo judizial sistemaren alderdi ezberdinak erakutsiko dira: Epailea alkate bat izango da lurrak jabetza publikokoak edo pribatukoak, baina aristokraten lurretan bada, beraiek jaurgo jurisdikzionala dute, hortaz tituluarekin batera justizia banatzeko aukera ere beregain du, eta uxo batengatik galeretako zigorra ezarriko dio.<br>Eztabaida interesgarria dago Alkatea (burgesia) eta epailea (aristokrazia). Bertan aristokraten argudioak naturaren legean oinarritu egiten dela dio, euren pribilegioak eta jabetzaren babesean, bigarren hau burgesiari ere interesatzen zaiolako. Alkateak dio ez del gauza bera bere ondasun urriak babestea edo eta nobleziaren pribilegioak.<br>Eztabaida bitartean Cabrík ihesi egiten du.<br>Mendian, Cabrík marseillarrekin topo egiten du: Baumier (eraikuntzako langilea) eta Arnaud (aduana gizona), aristokraten justiziatik ihesitakoak, biak bere burua abertzaletzat aurkezten dute. Apaiz baten laguntza jasotzen dute. Hirugarren Estatuko osaera eta egoera irudikatzen dute.<br>Apaizak landa munduko apaizen egoera deskribatzen du eta gizarte estamentuala inguruko eztabaida dute.<br>Eszenaren amaieran gazteluen erreketak agertuko dira. Borroka islatu egiten dute, herri xehearen ordezkariek hasiko dutena: Elizgizon xumeak, gazte ilustratua eta langile gaztea. Cabrik agurrean hauxe dio “gazteek mundu berri bat sortuko duzuen . |
| 11´23´´ | **Marseilla** 1790eko urria. Elkarte edo talde politikoak (jakobinoak)<br>Hizlarien gunetik emakume batek, iraultza galgatzen dutenen aurkako salaketa gogorrak egiten ditu, etsaia asanbladaren barruan dago, erregea eta erregina kritikatzen ditu, Beto jauna eta anderea deitzen ditu, Asanbladak hartutako erabakiak bertan behera uzteko duten ahalmenagatik.<br>Mitinean partaide batek emakumearen kontra agertuko da, aipatzen du gune hori ez dela emakumezkoentzako, hala ere partaide gehienek iraintzen dute eta emakumearen hitzak goraipatu egiten dituzte. |
| 18´54´´ | Elkarte berean eztabaida sortuko da Robespierren eta jakobinoen parera inguru, batzuk moderazioa kritikatzen dute eta bertze batzuk ordea anarkiaren beldur dira, beti ere adierazpen askatasuna errespetatuz.<br>Boluntarioen inguruko nolabaiteko mesfidantza dago eta jakobinoen jarrera inposatuko da, “garbiketa bat”, hots, ezin dute izenik eman zorrak dituztenek, eta familia bat euren ardura pean izatea. Honekin lapurrak edo abenturazaleak ez izateko |
| 21´58´´ | Marseillarrak Parisen sartu, bere himnoa abesten. Bastillaren aurriak lekuko dituztelarik. |
| 23´31´´ | Inprenta eta egunkari eta paperen bitartez iraultzaren proklamak ikusgai. Kanpoko erasotzaileen aurkako borrokara deituz, Maraten testuak errepublikaren aldekoak eta erregea atxilotzeko aldekoak. |
| 26´32´´ | Pariseko antzokia. Bertan itzal txinatar antzezlana baten bitartez garaiko gertaera politikoak erakusten dira: Erregea eta nazioa, ikuslegoak ahotzak zabaltzen dituzte errege kontra eta aristokrazia aldekoek haserrea erakutsiz. |
| 29´12´´ | Tullerietako jauregiaren erasoaren aurretiko eszenak. Erregeak bere gudariak agurtzera doa, baina tropan ere iraultzaren aldekoak dira.<br>Filma jauregiaren erasoa erakutsiko du, errege familia preso eramatea eta bukatzeko Valmyko gatazka non boluntarioen armadak, erasotzaile austriarrak garaituko dituen. |